



GOTZON ELIZBURU



MAITE KINTANILLA

HITZAK

Maite, gaur gure paperezko hegazkinian bidaiatxo bat egingo dogu...

Obamak aldaketa hitz eman dau AEBn, Ibarretzek herrixari (*EAEri*) hitza emongo zotsala esan zeban, Patxi Lopezek euskeraz “askatasunez” hitz egittia nahi dau, Madrillgo sotoren baten pertsona arriskutsu batzuei “hitz eginarazten” ibiltzen dira, krisixaz be hitz egiten da...

Hitzak handik eta hitzak hemendik. Baina horretatik zenbat hitz dira sinisgarrixak eta are gehixago, zeintzuk dira zuzenian gizurrak?

Neri galdera bat datorkit burura behin eta berriro, Maite. Hitza emon egin bihar doskue? Ez! Hitza kalera aterata lortu bihar dau herrixak! “Ez dugula hitzik nahi...” Gogoratzen kantua? Gaur egungo jendarte “sofista” honetan dana bestien esku. Barre egitten doskue arpegira agintarixek eta gure baimeenez! Hitza emongo doskuela esaten doskuen berberak tapatzen doskuez ahuak. Galdetu AHTn eta Koke planta berrixan aurkako burrukan dabizeneri, galdetu euskalgintzan lanian diharduan edonori... eta begiratu Madrilen (eta Gasteizen) azken hilabetietan pasa dana...

“Hartu hitza, hitz egin dezagun. Iritzia eman ezazu”. Horixe da egin bihar doguna, hitz egin, politikaz hitz egin, nahiz eta hau jende askok ulertu nahi ez izan, dana da politikia eta. Ez deixela gure ordeztu mintzatu eta pentsatu! Hartu hitza! Zeintzuk dira zure hitzak, Maite?



“

**Hitza emon
bihar doskue?
ez!**

Gotzon Elizburu

”

**Hitz
zurrumbiluan
dana ez da
zarata hutsa**

Maite Kintanilla

Ixilarazi nahi gaituzten eskuetatik ihesi... horra hor nere hitza, Gotz!

Hitz bat edo bestia...edota hitz bera, baina marmarrian edo oihuka, behin edo birritan... Izan be hainbeste hitzetan ezkututzen da HITZA. Baina, Gotzon, zeuk beezagutzendozu honetzkeru zein dan ustelkerixian usaina, ezta?

Aldaketa. Herrixari hitza. Askatasunez hitza. Mozorrua erantzi eta hitz hutsak besterik ez dira askon ahuan. Eta krisixa bera be hitzezko maskarek ez ete dabe egitten txiki edo haundi? Baina hitz zurrumbiluan dana ez da zarata hutsa; ixildu gaittezen momentu baten inon agindu barik, eta entzun: “... boltsa burutik bera sartuaz, hitz eginarazi nahi izan zidaten...” ; “...AHT-k kostu ekonomiko, ekologiko eta sozial itzelak ekarriko lituzke, eta batere informazio gardentasunik eta herriarren parte hartzerik gabe...” ; ...

Baina honen danan aurrian sistematik sortutako itsu-mutu-gor ugari dare...

A! Begixak zabalik ibili, hitzak haiziak eramaten dittuala be entzun izan dot maiz eta. Beraz... zeuk be goguan euki hitzez mintzo dan kantua “.hitza hartu, oihukatu” eta... isiltasunian bada be garraxi egin Gotzon, faltsuak diran horretatik gailendu dein. Eta segi deigun berberi ekinez laguntzen, haize bolada danen gainetik!



Goguan hartzeko

Aditzaile onari, hitz gutxi

J. Ormazabalena esaera zaharra



GUTUNAK

**Nahiko
Helduak
Gara!!**

Borrokak heziak izanik, iraultza haziak ere bagarelako... Oraingo honetan Deba Behearen txanda izan da; azaroaren 7an burutu genuen bertan Ikasle Egun txikia! 20. urteurrenean murgildurik gauden honetan Deba Behean ere bagenuen zer adierazi eta baita zer ospatu ere.

Klase egunetako errutina alde batera utzi eta 14.30ak inguruan Elgoibarko Mekako sarreran elkartu ginen egunari hasiera emateko asmoz. Trikiti nahiz panderoak hartu eta han abiatu ginen San Franzisko kale aldera Ikasle Egunari begira pegada herrikoia egitera, poteoaz lagundurik. Bertan eman genien eskualdeko gainontzeko ikasleei ongi etorria!

15.30ak aldean Elgoibarko gaztetxeruzko bidea hartu genuen, bertan bazkari goxoaz gozatzeko asmotan. 30 lagun inguru batu ginen tripakadarako. Bazkaltzen bukatu bezain laster ekin genion IA-ren 20. urteurreneko ibilbidea batzen duen bideoa ikusteari. Izan ere, izan zirelako gara eta garelako izango dira. Eta gaur egungo hau ulertzeko beharrezkoa daukagu izan zena ikastea, oroitzea.

Arratsaldeko 19.00en bueltan, ikasle on arteko hausnarketa burutu genuen. Aberasgarria izan

zen oso, eta argi utzi genuen bertan nahiko helduak garela Akritiko, sumiso eta ume bihurtu nahi gaituzten honetan ezetz oihukatuko diegu, eta gogor borrokatu gurea denaren alde. Bolognaren inguruan ere aritu ginen, honek dakartzan full-time ikasleetaz eta beste hainbat ondoriotaz. Gaur egungo, hainbat ikasle on artean gailentzen ari den pasibotasun eta zoriontasun faltsua ere izan genuen hizpide.

Kontzertuak hasteko ordu pare bat falta zirela, herriko plaza ingurura hurbildu ginen ostirale-tako kontzentrara.

22.00etan gaztetxea soinu biziz betetzen hasiera-rekin bat, jendea hurbiltzen hasi zen berriz ere. 100 bat persona inguru batu ginen bukaerarako, eta Ikasle Egunean berriz ikusteko asmoaz Revelphone musika talde soralezetarraren doinuekin amaiera bikaina eman genion egunari.

Deba Behean egun hau burutu badugu ere, Euskal Herriak baduelako zer ospatu aurten oraindik... azaroaren 22an Erandioko Ikasle Egunean egongo gaitun/k berriz ere!

MAITE KINTANILLA

**Eskerrik
Asko!**

Galtzagorri Jai Batzordeak Gaztañerre Azokan eta egun horren inguruan antolatu diren hitzaldi eta ikastaroetan zuen laguntza eman diguzuen soralezetar guztiei eskerrak eman nahi dizkizue. Denon artean errazagoa eta ederragoa delako. Eskerrik asko.

GALTZAGORRI JAI BATZORDEA

**PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEKO
HELBIDE ELEKTRONIKO BERRIAK:**

Elkarteko kontuetaarako: koordinazioa@pilpilean.com
Aldizkariko kontuetaarako: aldizkaria@pilpilean.com
Publizitate kontuetaarako: publizitatea@pilpilean.com

eta **ORDUTEGIA**

Astelehenetik - Barixakura 10:00 - 13:30
Martitzen eta Eguenetan 17:00 - 20:00

 **PIL-PILEAN**

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Leire Iturbe, Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarra eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORLUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Eguzkiñe Aldazabal

"NERE FAVORITOAK"

Aspaldian gutun itsusiak besterik ez dira iristen buzoira. 85 euro eskatzen dizkit telefonikak urrian. Gastuak jeltsi nahian, fakturari errepaso bat ematen hasi naiz; ia ze ordutan, zeini, zenbat deitzen diodan begira. Bezeroen harretarako zenbakian, esaldiak bata bestearen ondorekin botatzen dituen neskarekin hitz egin dut. Neretzako onena, "nere favoritoak" kontratu mota omen da. Grazia egin dit, kontratu hau orain urte batzuk egin bainean jada. Baina denborak, konturatu gabe, lehengo favoritoak jada ez hain favorito egin ditu. Eta neri telefonikari abixatzea ahaztu... Eta pentsatzen jarri naiz, lehen ahoz aho esaten ziren gauzak "nere lagunik onena zara", "faltan botatzen zaitut", "ahaztu nitaz, ez deitu gehiago" orain telefono konpainiari esaten dizkiogula, kasik interesatuari baino lehenago. Mesede bat egingo baligu bezala sekretu guztiak harekin konpartitu, eta goizean goiz ezer esan gabe alde egiten duen maitalea da. Inpersonala eta iheslaria. Eta gainera, "que tenga un buen día señora Aldazabal" entzun behar...

Aurkeztu zure burua herritarrei...

36 urte dittut eta azpeitiarra naiz. Arkitekturako ikasketak egin nittuan Donostiako Fakultatian.

Zenbat denbora daroiazu Udal Arkitekto moduan?

Urtarriletik daroia Soraluze-ko Udalian arkitekto lanetan eta hasieran hamabost egunetik behin etortzen banintzan be, orain astero etortzen naiz, normalian martitzenetan.

Zein da zehatz - mehatz zure betebiharra?

Nere lana, orokorrian, proiektuak aztertzea oinarritzen da. Alde batetik obren eta hirigintza arauen inguruko zalantzak argitzendituetabesetik, herrixan egin leikezen proiektuen azterketia be egiten dot.

Zein da Soraluzek arkitektonikoki duen alde positiboa eta negatiboa?

Udaletxe ingurua eta Santa Ana kalia ondo darella pentsatzen jata; herriko alde zaharra dana, esan leike. Baina 70. hamarkadan egin ziran etxien egitura ez da oso politta. Garai honetan, etxiak egittia bihar zan eta gaur egun ikusten doguz honen ondorixuak. Industrializatutako herrixa dala ikusten da eta lan haundixa dago guzti honi bueltia emateko. Espazio publikuen sorreria bultzatzen dihardugu baina diru kontuak beti dira arazo.

**Eta badu konponbiderik?**

Konponbidia gauza danak dake baina daganakin hasi bihar da lanian. Leku ederrak eraberritza lan erraza da baina Soraluze moduko egitura daken herrixak zailaguak dira eraberritzen. Espazio publikoak berriro beharko dira, beste batzuk sortu eta aparkalekuen arazuari be irtenbidia aurkitu biharko jako.

Ongizatia bermatzen daben proiektuak izango dira gure lehentasunak

PER - an inguruan berririk badago?

Hemen lanian hasi nintzian zerbait begiratu genduan baina orain geldi dago asuntua. Udala, herrixa eraberritzeko asmua kin hainbat proiektu aztertzen dabil baina beste zerbitzu batzuk lehentasuna dauke. Ongizatia bermatzen dabenak izango dira gure lehentasunak (*kirola, kultura, gazteria...*) beti be alde zaharra eraberritzeko lanak alde batera utzi barik. Ideia asko dare herrixan baina finantziario arazua dirala eta poliki-poliki egin biharko dogu aurrera. 🌀

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Hurgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postua
T. 943 75 2375

Misio Taldeak 2.209 euro lortu du Haitiri laguntzeko



Haitin herri asko suntsitu dute uholdeek

Aurten ere Misio Taldeak Gaztañerre egunean postua jarri eta 2.209 euro lortu du Haitiko uholdeek sortutako ezbeharrak konpontzen laguntzeko. Diru gehiena, herritarrek egin eta borondatez emandako goxoak salduta batu dute. Jasotakoarekin, eraikinak berreskuratu, kanalizazioak egin eta beste hainbat azpiegitura berreraikiko

dituzte. Goierriko talde batzuekin batera, eraikin materiala eta oinarrizko elikagaiak ere bidaliko dituzte Haitira.

Misio Taldeak herritarrei esker eman nahi dizkie eta hone-lako ekitaldietan parte hartzen jarraitzeaz gain, taldean bertan parte hartzera animatu nahi dituzte. 🌱

Ezoz Zangituri omenaldia



Gaztañerre Eguna ospatzearekin batera Ezoz Zangitu irakasleari omenaldi beroa egin zioten Lehen Hezkuntzako haur eta irakasleek. Merezitako agurra izan zuen Ezozik, bera baita herriko seme-alabak euskaraz hezten hasi zen lehen irakaslea; baliabide gutxiarekin baina gogo handiz ekin zion bere lanari gaur egun arte.

Liburutegian Wi-Fi zerbitzua

Udalak jakitera eman du liburutegian WI-FI zerbitzuaz gozatzeko aukera egongo dela, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Hainbat erabiltzailek behin eta berriz eskatu dute Interneterako kontsulten zerbitzua indartzea eta areagotzea. Hori dela eta hartu du Udalak neurri hau.

Txakurren kaka jasotzeko zakarrontziak

Hurrengo egunetan txakur kakak jasotzeko zaborrontziak jarriko dira herriko hainbat lekutan: Gipuzkoako etorbidean, Atxuriko parkean, Baltegieta pasealekuan, Arrizabale-tako parkean, Arraikuako parkean eta Bidegaraiko sarreran ere.

Debekuaren gaintik

Argazki hau Mikel Valerok Irukurutzetako mendian gainean ateratakoa da. Motorrak mendian ibiltzea aspalditik debekatuta egon arren, oraindik orain, sarritan ikus eta entzun daitezke, argazkiak erakusten duen moduan. Baina noiz arte?



Iturria: M. Valero





MAPFRE



SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabalatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Bizikletentzat katealekua



Datorren astetik aurrera bizikletan ibiltzen diren herritarrek izango dute non aparkatu. Zubi Nagusian, bizikletak lagatzeko burdinezko katealekua ipiniko du Udalak. Arrakasta izanez gero, horrelako aparkaleku gehiago jartzeko aukera ere egongo dela azaldu du Udalak.

Ikasle Eguna Erandion



Iturria: M. Kintanilla

Hilaren 22an, zapatua, Ikasle Abertzaleak Ikasle Eguna antolatu du Erandion. Sarrerak Arrano tabernan daude salgai eta eskualdeko autobusean joan nahi duenak bertan eman beharko du izena. Egitarau zabala prestatu dute IAren XX. urteurrena ospatzeko: erraldoiak, buruhandiak, trikitilariak, kalejirak, jolasak, pailazoak, musika maratoia, bazkaria, bertso saioa, manifestazioa, kontzertuak...

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontra ekimenak izango dira

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da eta Soraluzean ere bada zer salatu. 2007an herrian lau emakumeek salatu zituzten tratatu txarrak eta aurten momentuz beste lauk. Legearen aurrean salatu ez arren, indarkeria fisikoa, psikikoa edo psikologikoa jasaten duten emakumeak asko dira herrian, Udaleko laguntzaileetako batek azaldu duenez. Udaleko Gizarte Zerbitzuak hiru laguntza ezberdin eskaintzen ditu: laguntza psikologikoa (*ez da beharrezkoa salaketa ipintzea*), laguntza ekonomikoa (*salaketa ipiniz gero, ez dago baldintza zehatzik*) eta larrialdietako pisua.

Elkarretaratzea, hitzaldia, antzerkia

Hilaren 12an eginiko Osoko bilkuran *Emakumeenganako indarkeria gehiagorik ez!* lemapean aurkeztutako mozioa aho batez onartu zen. Modu honetan, Uda-

Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

25 de Noviembre, Día Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres

Denon zeregina da

EZ ISILDU !
¡ NO TE CALLES !

Kontzentrazioa 19:00etan Plaza Barrixan

Soraluzeko Udaleko Emakume Batzordea

Aurtengo kartela

lak azaroaren 25ean arratsaldeko 19:00etan kontzentrazioa joateko deialdia luzatu du. Udaleko Emakume Batzordeak bere aldetik, elkarretaratzea joateko deialdia egiteaz gain, hainbat ekimen ere antolatu ditu. Azaroaren 26an "Tratu txarrak eta eraso sexualak. Emakumeak egin dezakeena eta jakin behar duena" hitzaldia egongo da Azpeitiko Udaleko Berdintasun Teknikariaren eskutik, iluntzeko 19:00etan Kapillan. Azaroaren 28an "Encantadas" antzerkia antzeztuko du Virginia Imaz aktoreak gaueko 22:15ean, kiroldegian. ☺

PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21 20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Hnos. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AUERRERA ZABALIK

GOSARIAK ETA PINTXO GOXO GOXUAK

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

ELIZPE
Hortz Klinika

- DOANEKO BERRIKUSKETAK
- FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

Pauso bat harago goaz! Euskaraz bai!



Duela 10 urte...BAI EUSKARARI!

Euskal gizarteak BAI EUSKARARI esan zuen. Euskal Herriko 5 estadio jendez lepo bete ziren.

Orain, pauso bat harago goaz! EUSKARAZ BAI!

Pauso bat harago” emateko deia egin digu Kontseiluak bere 10. urteurrenean. Euskaraz bizitzeko unea iritsi dela aldarrikatu nahi du gizarte osoaren aurrean. Alegia, euskararen aldekotasuna adieraztetik, ikasteko eta erabiltzeko konpromisoa hartzera pasatu beharra dagoela. Guztiok batera, instituzioek, jendarte-eragileek eta norbanakoek. Abenduaren 13an BECen egingo den ekitaldian izango dugu “Euskaraz bai!” esateko aukera.

Urrats bat harago...

Bizikidetzan!

Euskararen eta euskaldunon benetako normalizazioan!

Euskaraz bizi gaitezten!



ZU ERE BAZATOZ?

Ekitaldia: Euskaraz bai! Bilboko BECen, abenduaren 13an, 18:00etan

EKITALDIRA JOATEKO MODUA

Autobusa

Pil-pilean Euskara Elkarteak autobusa antolatuko du. Izena emateko: jo Pil-pileanera 943 75 13 04 edo koordinazioa@pilpilean.com. Horrekin batera sarrera gordeko da.

Norbere Kabuz Joateko

Sarrera derrigorrezkoa da. Doakoa da. Sarrera www.nierebanoa.org webgunean lortu daiteke edo Pil-pileanera deituta.

Zulotik
begira

Euskararen oraina eta geroa

Euskara Euskal Herriaren nortasuna da, gure kulturaren oinarria. Baina zergatik ez dugueuskaldunokeuskarazhitz egiten? Zergatik kalean buelta bat ematean gaztelania baino ez da entzuten? Zergatik dago euskara egoera honetan? Nola hobetu ahalko genuke euskararen egoera?

Euskarak gero eta hiztun gehiago du, eta hazkunde hori gazteen artean da nabaria eskolari esker. Bi miloi biztanletik, gutxi gorabehera, laurdenak baino gehiagok daki euskara. Ez da asko, baina tira, gorantz goaz. Baina, hauetatik, zenbatek erabiltzen dute eguneroko bizitzan? Duela gutxi egin den azken kale neurketaren arabera, Euskal Herri osoan euskararen kale erabilera ez da %15era iristen. Negargarria, ezta?

Legeek garrantzi handia dute kontu honetan guztian. Esaterako, euskara EAEn ofiziala da eta hauxe dugu euskara gehien erabiltzen den lurraldea. Nafarroako eremu euskaldunean ere ofiziala da eta egoera ez da hain txarra. Arazo nagusia Iparraldean dago. Hemen euskarak ez du inolako lege-babesik eta, etengabe, atzeraka egiten ari da.

Umeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Etxean ez badute ikasten, eskolan egiten dute. Baina umeen inguruan dauden pertsonen euskara erabiltzen ez badute, umeek, azkenean, euskara jakin arren, gaztelaniara jotzen dute. Eta zertarako balio du hizkuntza bat jakiteak gero erabiltzen ez bada? Ezertarako ez, eta, azkenean, hil egingo da.

Ez dugu ahaztu behar gure hizkuntza diglosia gorrian bizi dela, askozaz indartsuago diren gaztelaniaren eta frantsesaren kontra lehiatu ezinik. Honen eraginez ere, esaterako, Euskal Herrira datozen etorkin gehienek ez dute euskara ikasten ez dutelako euskara beharrezko hizkuntzat hartzen. Gaztelania jakinda nahikoa da, ez duzu



besterik behar. New Yorkeko Fordham Unibertsitateko irakasleek diotenez: “Beharrezko ez diren hizkuntzak, globalizatutako mundu honetan, ez dute etorkizunik.” Eta honek ba al du erremedio-rik? Ni, honetan, bat nator Gotzon Garatek proposatzen duenarekin: independentzia. Independentek bagina euskara derrigorrezko hizkuntza egingo genuke Euskal Herrian bizitzeko eta denok erabiliko genuke.

Hau guztia ikusita legeak garrantzi handia dutela ikusten dugu, baina ez dugu dena legeen eskuetan utzi behar. Guk ere gure zatitxo jarri behar dugu euskararen alde. Nola? Egunero erabiliz. Hizkuntza bat ez delako galtzen jendeak ez dakielako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik.

ASIER AMEZUA

Asisko Urmeneta

IÑIGO GABILONDO, itsasgizona

“Itsasoari errespetua zor zaio beti”

Olatuak, ura, bakea. Arrainak, hegaztiak, izarrak. Ekaitzak, marea biziak. Itsasoan lan egiten duenak badaki zer diren. Iñigok badaki.

Lehenengoa izanda, itsasgizon izateko ideia zela erne jatzun?

Hasieran, tipikua. Mutila naizenez etxian ingeneritzako ikasketak egittia gomendatu zosten baina ez jatan larregi gustatu eta aldatzia erabaki neban. Itsasua beti gustatu izan jata, ostera, eta nautika ikastia erabaki neban.

Lehenengo bidaitik, ze gogoratzen dozu?

Nere lehenengo bidaia Galiziatik irten eta Panamaraino izan zan, itsasontzi zahar-zahar batian. Imajinatu, bere azken bidaixa hau izan zan, gero desguazera eramane zeben. Hasierako inpresinua oso gogorra izan zan baina bidaixak aurrera egin ahala gustua hartu notsan eta lehorreratu ginationian nere ogibidia izango zala erabaki neban.

Barkuko kapitaina zara. Zein da kapitainan egitekoa?

Ondiok, kapitaina izateko egun batzuk falta jataz. Izan be, ikasketak amaittu eta poliki-poliki igo bihar da goruntz. Kapitainak, itsasontzixan gertatzen dan guztixa kontrolatu bihar dau. Sail bakoitzak (makinak, kargak...) ofizial bat izaten dau baina danan erantzunkizuna kapitainan eskuetan geratzen da. Bera da, esan leike, itsasontzixan gehixen agintzen dabena.

Zelako itsasontzixetan lan egitten dozu?

Gure konpainiak itsasontzi gaseruekin egitten dau lan. Gas naturala alde batera eta bestera ga-

rraiatzen dogu. Itsasontziko logelak hoteletakuen antz haundixa dauke. Danera 27 lagunek egitten dogu lan bertan eta bakoitzak bere logelia dauka. Danak, telebista, hozkailua, telefonua, internet... dauke eta bakoitzak bere bainugela be bai. Akomodazinarako 7 pisu dittu itsasontzixak; oso haundixa da.

Orduak eta orduak itsasuan. Ura eta ura. Zela sentitzen zara?

Oso gustora sentitzen naiz. Ez dogu aspertzeko denbora larregi izaten. Atlantikua zeharkatzen, adibidez, lau egun egin geinkez ezer ikusi barik eta denbora ahal dan moduan aprobetxatu bihar dogu. Nere lanordua goizeko 4etatik 8ak arte eta arratsaldeko 4etatik 8ak arte izaten da. Denbora horretan itsasontzixan norabidia kontrolatu eta danataz arduratzen naizela esan leike. Otorduekin eta lo egitten ixa eguneko gainontzeko orduak pasatzen dira. Bestela be, badakagu zer eginik. Kalkulu astronomikuak esaterako (izarrekin eta eguzkixarekin egitten diran neurketak).

Bitakoraren koadernorik egitten dozu?

Bai, noski. Bi kuaderno desberdin bete bihar dittugu, bitakoran koadernua eta nabegazinuaren koadernua be bai. Lehenengua zubixan dagan ofizialak bete bihar dau eta datu teknikuak batzen dira bertan; garrantzitsuena da. Bertan, egin diran maniobrak, itsasuaren egoeria, norabide aldatetak zehaztu bihar dira.

**lehenengo
bidaia
Galiziatik
irten eta
Panama-
raino izan
zan**

Gehixenez zenbat denbora egin dozu lurra zapaltzeke?

Bi hilabete egin dittut lurra zapaldu eta deskantsu barik. Hegoafrika-Cartagena bidaixa izan zan. Batzuetan ordu batzuk izaten dittugu lurraldia piskat ezagutzeko baina bidai horretan dana segidan izan zan. Bestela, nik 76 egun itsasuan eta 76 egun lehorrian egitten dittut.

Munduko zein baztar ezagutu dozuz?

Asia, Korea, Shingapur, Taiwan, Afrika, Egipto, Hegoafrika eta Maroko. Hego Amerikan berriz, Brasil, Ekuador, Trinidad, Panama eta Kosta Rika. Anekdotak gutxi gertatu jakuz. Behin gure itsasontzixa arrantzako itsasontzi bati lotuta zeguan eta gabaz emakume bat hurbildu zan bertara. Txixaguriak zeguala eta arrantzako sarietan egin zeban. Hurrengo goizian marinela kristoneko arrantza eginda bueltatu eta emakumian bila zoruen pare hasi ziran, berriro be txixa egin zeixen eskatuaz.

Piratak dirala eta ez dirala. Ze iritzi daukazu?

Piratak egon badare eta arazo haundi bat da baina zaila da hori konpontzia. Gure itsasontzixan sartzia zaila egitten jakue oso altua dalako baina puntu batzuetan neurri oso zorrotzak hartu bihar dira. Callaun eta Guayakil esaterako oso arriskutsuak dira, piratak oso erraz lapurtu leikelako baina Samdia edo Malaka arriskutsuaguak dira, bertakua armatuta dare eta. Guk horren aurrian gutxi egin geinke. Segurtasun sistemian martxan jarri eta itxaron, besterik ez.

Anfibio bihurtu bihar izaten dau itsasgizonak. Itsasoratzean eta lurreratzean ze sentitzen da, batian eta bestian?

Itsasontzixan enbarkatzerakuan poza ez, lanera goiaz eta. Familixatik urrundu eta lagunak be agurtu bihar dittuzu baina behin errutinan sartuta, martxa hartu eta denboriak aurrera egitten dau. Bueltan, ostera, poza da sentitzen dana. 76 egun itsasontzixan egon ostian nekia be nabari da baina behin hankia lurrian jarritta, dana ahaztu eta gozatzeko momentua heldu dala konturatzen zara.



Senidekin, lagunekin, neska lagunekin... zela mantentzen dozu harremana?

Konpainia honetan telefonua eta interneta dohainik erabili geinkez; orduan, nere senide eta lagunekin kontaktua ixa egunero izaten dot. Esan leike, itsasuan naguan tarte horretan maitte ditudanekin kontaktu fisikua bakarrik galtzen dotela. Askok esaten doskue "zelako gogorra familixatik hola urruntzia" baina 76 egun jai ditudanian, maite ditudanen onduan egoteko denbora asko dakat eta asko aprobetxatzen dot aukera hori.



ITSASOA

Zerk harritu zaittu?

Itsasuan indarrak eta bere aldaketak

Zer da ederrena?

Bakia

Zer da arriskutsua?

Eguraldi txarrakin sortzen diran mareak

Beldurra ala errespetua?

Itsasuari errespetua beti

Zer erakutsi dotsu?

Hemendik kanpora mundu zabal bat daguala pentsaera anitzak biltzen dituduena

nik
76 egun
itsasuan eta 76
egun lehorrian
egitten dittut





GAZTAÑERRE EGUNA

(HAUR HEZKUNTZAKO 4 URTEKOAK)

KUKUROT XOAK PRESTATU DITUGU



GAZTAINAK ERREKO DITUGU DANBOLIN ZAHARREAN GURE ESKOLAN, JE!



DENOK BERO-BERO PUZKAR GERO, JE!




Txistea

**Gizon bat medikua-
rengana joan zen
eta esan zion:**

- Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkarrek ez dute usainik.
- Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!
- Ppppprrrrrrrrrrrr!
- Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
- Ipurdian?
- Ez, gizona, sudurrean.





Gaztañerre eguna ospatu dozu?

Zer edo zer berezixa egin zenduan?

Miren Muguruza, 7 urte



Bai, ospatu neban. Zapatuan basarritarrez jantzita azoka ikustera juan nintzan eta gero karpan bazkaldu genduan. Dantza mordo bat be egin neban lagunekin eta asko gustatu jatan.

Ignacio Arana, 7 urte



Ez nintzan basarritarrez jantzi baina animalixak ikustera juan nintzan azokara eta gaztainak be jan nittuan. Gehixen gustatu jatana, zaldixak eta ponixak ikustia izan zan.

Guk ospatu genduan Gaztañerre eguna. Eskolan Ezozi andereñuari abestu egin zotsagun eta gaztainak be jan genduzen. Ez nintzan basarritarrez jantzi baina azokan animalixak ikustia asko gustatu jatan.

Julen Gallastegi, 7 urte



Basarritarrez jantzi eta lehenengo azoka ikustera juan ginan. Dantzaldiko aurkezlia be izan nintzan eta gero dantza be egin neban. Gero gurasuekin eta lagunekin soziedadian bazkaldu genduan. Oso egun politta!!

Maddi Garmendia, 7 urte



AsMAKIZuNA

Ilunpean begiak diz - diz, bizi - bizi, animalia honek baditu gutxienez zazpi bizi. Zer da?

Soluzioa: katua



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Egokixa da motordun ibilgailuekin mendixan ibiltzia?

Motordun ibilgailuek Karakatetik Irukurutzetara bitartean ibiltzea debekatua badute ere, gaur egun sarritan ikus eta entzun daitezke. Zenbait mendizalek egoera salatu du.

PABLO SANTO DOMINGO
Jubilatua



Neri oso gaizki iruditzen jata motorrak eta mendixan ibiltzia, errepidiak zeozetarako dare eta. Zaila da honi konponbidia topatzia baina norbait ipini ahalko litzake mendixa zaintzen eta bide batez, lanpostu bat gehixago sortuko zan.

INA REVUELTA
Etxekoandria



Nik oso txarto ikusten dot mendixan dagan lasaittasunakin holako ibilgailuekin ibiltzia. Kutsaduria ekartzen dabe eta belarra be asko altxatzen da, batez be bustitta daganian. Udalan eskuetan dago honi irtenbidia topatzia.

BEÑAT GARATE
Kale garbitzailia



Neri mendixan ibiltzia oso gaizki iruditzen jata, lurra altxatu eta mendixa apurtu egitten dabelako baina pistetatik igotzen badira ez dot gaizki ikusten, asfaltua da eta. Pista berezi batzuk egin biharko littukiez holako ibilgailuentzat.

AMAIA AJURIAGERRA
Kalitateko teknikarixa



Ez dot bape egokixa ikusten, horrek suposatzen dau eta kutsaduria, zaratia eta mendixa apurtzia. Debekatu dabenak zeoze egin biharko leuke, debekua ipintziakin bakarrik ez da nahikua eta; isunak, adibidez.

KOMIKIXA



Disseinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

80 urtetik goragokoen bazkaria

Itxaropenak, hilaren 29an 80 urtetik goragokoentzat bazkari bat antolatu du eta jarraian omenaldia egingo zaie. Bazkaria Itxaropenan bertan egingo da eta interesatuek bertara jo behar dute izena emateko. Azaroaren 24tik aurrera karta txapelketa ere antolatu dute. Izena eman nahi duenak Itxaropena Elkartean egin beharko du.

Ogi Ikastaroa Kirueta baserrian



Azaroaren 15ean, Pil-pileanek antolatutako ogi ikastaroa egin zuten 10 laguninguruk Kirueta baserrian. Baserriko labe tradizionalan ogia nola egiten den ezagutzeko aukeraz gain, norberak bere masa eta ogia egin zuten.

Antzerkia Arranoan

Igandea, hilak 23, Klostrofobia mendian antzezpina eskainiko dute arratsaldeko 19:30etan Arrano tabernan.



Abenduan Angel Bolunbururen argazki zaharrak ikusgai

Kontrargi Argazki Kolektiboaren eskutik, abenduaren 2tik 31 bitartean Angel Bolunburu "Biribiltxo"ren argazkiak ikusteko aukera egongo da Kiroldegiko erakusketa aretoan. XX. Mende hasieratik erdialderako irudiak dira, herriko bizimodua erakusten dutenak.

60 argazkitan bizitza bateko lana

Biribiltxo (Soraluze, 1896-1974), argazkilari autodidakta; hogeitau urte ingururekin, S.A.P.A. kanoi fabrika lanean ibili zen bitartean hasi zen lana eta argazkilaritzarako zaletasuna uztartzen, Errekalde kaleko bere etxean jarri zuen argazki-laborategiarekin. Bere zaletasunari esker, Soraluzeko antzinako kultur eta gizarte-bizitzaren dokumentazio grafikoa jaso du argazkietan. Kontrargi argazkiak sailkatu, izendatu eta aukeratu egin ditu.

Egunero zabalik

Erakusketako ateak astebaruan arratsaldeko 19:00etatik



21:00etara egongo dira zabalik eta astebukaeretan eguerdiko 12:00etatik 14:00etara. Kontrargiok Soraluzeko Danobat Taldearen dirulaguntza izan dute proiektu hau aurrera ateratzeko eta bide batez, eskerrak eman nahi dizkiete Biribiltxoren senideei eta erakusketa prestatzen lagundu duten herritar guztiei, denon artean osatutako lana dela diote eta. ☺



AEK eta EPAko euskara ikasleak, Berbalagunak eta Pil-pileanekoek Gaztañerre Eguneko afaria egin zuten kantu eta guzti, azaroko bigarren asteleheneko ohiturari jarraituz.

ARMENDIA JATETXEA



Ezozi Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarateak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

12 soraluzetarrek hartu zuten parte Behobia-Donostian

Azaroaren 9an burutu zen Fortuna Kirol Elkarteak antolatzen duen Behobia-Donostia maratoi erdia. Guztira 13.950ek hartu zuten parte.

Gizonezkoetan, Chema Martinez madrildarrak irabazi zuen laugarren urtez jarraian (1:00:31). Emakumezkoetan Ana Casares iruindarra izan zen garaile (1:13:43).

Soraluzetarren sailkapena:

Juan Arsenio Izagirre	993. postuan	1:21:33
Jose Anjel Gamazo	1952. postuan	1:29:06
Mikel Elizburu	5597. postuan	1:37:00
Unai Ormazabal	7087. postuan	1:41:00
Alberto Arizaga	8442. postuan	1:45:06
Jesus Uzin	8459. postuan	1:45:10
Asier Rodriguez	8490. postuan	1:45:17
Aitor Leturiondo	9132. postuan	1:47:25
Ane Miren Etxabe	9418. postuan	1:48: 23
Moises Aranzeta	12098. postuan	1:59:34
Maria Asun Rascon	13026. postuan	2:06:44
Lierni Santamaria	13813. postuan	2:36:36

Luis Ariznabarreta izan da Karakatera Igoeran

Azaroaren 15ean burutu azen Elgoibarko Morkaiko Mendi Elkarteak hamabostga-

rrenez antolaturiko Elgoibartik Karakaterainoko igoera. Inoizko igoera jendetsuena izan da. Soraluzetar bakarrak parte hartu du, Luis Ariznabarretak (48 minutu eta 9 segundu, 52. sailkatua) Irabazlea Josu Arregi azpeitiarra izan da (29 min. 18 s.) eta lehen emakumea Ohiana Kortazar elgetarra (36 min. 52 s.). Emakumeen arteko errekorra bereganatu du.



EMAITZAK

FUTBOLA

Sora (Erreg. N.)	
Eibartarrak Eibar S.A.D.	6 - 1
Sora (Erreg. M.)	
Ikasberri K.E.	3 - 2
Eibartarrak F.T. "B"	
Sora (Jub)	6 - 0
Urki C.D.	
Sora (Kad.)	8 - 1
Mondragon C.F.	
Sora (Erreg. N.)	0 - 3
Eibartarrak F.T. "B"	
Sora (Erreg. M.)	2 - 4
Sora (Jub.)	
Elgoibar C.D.	0 - 9
Sora (Kad.)	
Bergara "B"	5 - 1

PILOTA

Rico - Zezilio	9
Mendizabal - Jauregi	22
Erreixenea - Jauregi	22
Muguruza - Larrañaga	13

AGENDA

FUTBOLA

Domeka 23, 15:45etan Ezozin
Sora (Erreg.N.) - Arizmendi
Zapatua 22, 15:45etan Ezozin
Sora (Erreg. M.) - Urki C.D.
Domeka 23, 12:00etan Mojategin
Mondragon C.F. - Sora (Jub)
Zapatua 22, 11:00etan Ibarra
Aretxabaleta K.E. - Sora (Kad.)

ARRANO
taberna
etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua
etxera

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA
Kalebarren 29
Soraluze
T. 943 75 12 49

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

ZORION AGURRAK



Ivan Ayora Plata
Azaroaren 30ean 13 urte
Zorionak txapeldun!
Oso ondo ibili zure egunean
famiariaren partez!



Manex Osinaga
Azaroaren 21ean 5 urte
Beti bezain jator jarraitu
famiariaren partez!



Ane Moreno
Azaroaren 16an 8 urte
Zorionak eta muxu asko
famiariaren partez!



**Nahia Mendia
Hernaez**
Azaroaren 23an 2 urte
Zorionak prezioxa!
Muxu haundi bat
etxearen partez!



**Haizea Makinai
Murgoitio**
Azaroaren 19an urtebete
Zaren bezalako izaten
jarrai ezazu. Maite zaitugu!
Etxekoak

jaiotakoak

HÉCTOR MARTÍN FERNÁNDEZ SOUSA



hildakoak

MARIA ASCENSION BERRUETA ELIZBURU



IRAGARKIAK

25 eurogaitik zure Firm. Psp M33 eguneratuko dugu,
610 771 525 telefonora deitu.

LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► Noiz sortu zan Soralaruzeko lehenengo Musika Bandia?

- 1838
- 1910
- 1938

► **Saria:** **Pil-produktuen sorta** (baserrien liburua, Dantzako DVDa, pil-kamiseta eta pil-pegatina)

► **Irabazlea:** Aurreko aleko lehiaketan ez da partehartzailerik egon

► **Leziako Haitzak...** Artzabal jentilak bota zittuan. Antzina kontatzen zan mendi gainian bizi zan indar ikaragarri jentila zala eta haserraldi baten bota zebala haitza Atxolindikan.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu aldiskaria@pilpilean.com

ARGAZKI ZAHARRA



LEHENENGO HERRI KROSA

Argazki hau 1978ko abenduan 17xan etarata Adago, Soraluzean egin zan lehenengo Herri Krosian. Orain dala 30 urte ateratakua orduan, eta irabazlia Jose Mari Gomez izan zan; argazkixan besuak zabalik eta helmugara heltzen irriparez agertzen dan txapelduna. 🌀